

# **UR HORNIDURA EMATEKO ETA URAREN ZIKLO INTEGRALAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAINERAKO ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

## **I. TITULUA**

**Imozko Udalaren tasak/prezio publikoak, uraren ziklo integralarekin zerikusia dutenak**

## **I. KAPITULUA** **Oinarria**

### **1. artikulua.**

Titulu honetan ezartzen diren tasak/prezio publikoak Nafarroako toki entitateei aplikatu beharreko araudi fiskalak entitate horiei emandako ahalmenen babesean eta haiekin bat etorritik ezarri dira.

## **II. KAPITULUA** **Ordainarazpenaren izaera**

### **2. artikulua.**

Titulu honen xedeko tasek/prezio publikoek beheko ur hornidura eta aurrekoarekin eta uraren ziklo integralarekin ikusteko duten gainerako jarduera eta zerbitzuak ematea dute oinarri. Beraz, ezartzen diren ordainarazpenak, izaera fiskalaren ikuspegitik, tasak dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren zerbitzuak eta jarduerak eman edo egiteari dagozkionak.

## **III. KAPITULUA** **Aplikazio eremua**

### **3. artikulua.**

Ordenantza hau Imozko udal mugape osoan aplikatuko da.

## **IV. KAPITULUA** **Zergapeko egintza**

### **4. artikulua.**

Zergapeko egintza da ordenantza honek araututako zerbitzuak eskura izan edo eskuratu ahal izatea, nahiz jarduerak erabili edo erabili ahal izatea. Horiek behar diren tasak/prezio publikoak sortzen dituzte eta, banan-banan, ondoko hauek dira:

- a) Edateko uraz hornitzeko zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantentze lanak.
- b) Edateko uraz hornitzeko zerbitzua erabiltzea. Tasa aldatzen ahalko da uraren erabileraren edo helburuen arabera, eta tarifa konbinatuak ezarriko dira urari erabilera desberdinak eman eta neurgailua bakarria denean.
- c) Edateko uraren hornidura behin betikoz kontratatzeko beharrezkoak diren jarduketan zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea (lotune kuota).
- d) Edateko ura banatzeko sareetara lotzeko hargune eskubideak. Ur hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuen eskuragarritasun fisikoa sartzen da.
- e) Behin-behineko horniduretarako izen emateak.
- f) Ikuskapena, Udaleko langileek egiten dutena, arauak zehatz-mehatz betetzen diren ala ez egiaztatzeko, ordenantzetan araututakoa hausten den kasuetan.

Lurzoru urbanizaezinean bakarturik dauden etxebizitzek ez dute eskubiderik sare orokorra beren lurzatiraino eskura izateko. Zerbitzu hori jabe bakoitzak autonomoki eta bakarka moldatu behar du, 35/2002 Foru Legearen 116.4 artikulua ezarri bezalaxe, alde aurretik Udalak baimena emanda eta kontagailuak jartzeari buruz emandako jarraibideak beteta.

Era horretako etxebizitzek gaur egun jadanik zerbitzu hori eskura badute, xedapen hauek aplikatuko dira:

- ⌚ Sare orokorrari lotzeko obren jatorria pribatua bada, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, Ordenantza honek sare orokor gisa definitzen duen hartatik kanpo gelditzen den hornidura sarearen zatia mantentzeko lanez zerbitzuaren etxebizitza onuradunaren jabeak arduratu beharko du, eta udalaren betebeharrak bakarrik izanen da sare orokorra egoera onean mantentzea, noraino eta Udalak etxebizitza horretarako ezarri duen lotuneraino.
- ⌚ Etxebizitza horien kontsumoak ongi kontrolatze aldera, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, Udalak edozein unetan lekuz aldatu ahal izanen ditu lehendik dauden kontagailuak, sare orokorrarekin lotzeko eremuan jartze aldera, eta zerbitzuaren onuradunak ezin izanen dio kontra egin.
- ⌚ Sare orokorrari lotzeko obren jatorria publikoa bada, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, sare hori sare orokorrari eratxikiko zaio eta sare orokorraren ezaugarri berberak izanen ditu.

## **5. artikulua.**

Udalak behar diren prezioak ezarriko ditu harguneetako lanak finantzatu ahal izateko, bai edateko uraren hornidura sareetakoak, orobat kontagailuak prezintatu, egiaztatu, ezarri eta berritzeko, lan horiek Udalak berak egiten dituenean.

Udalak (edota lehenago zerbitzu hori ematen zuen Kontzejuak) baimendutako kontagailuen kokapena aldatzea Udalaren kargura joanen da.

## **V. KAPITULUA** **Subjektu pasiboak**

### **6. artikulua.**

1. Subjektu pasibotzat hartuko dira, ordenantza honetan ezarritako tasak/prezio publikoak ordaintzera behartuak, zergadun gisa, pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak, nortasun juridikorik izan gabe ere zerga jasan dezakeen entitate ekonomiko bat edo ondare bereizia osatzen dutenak, ordenantza honen xedeko zerbitzu eta jardueren onura, errealak edo ahalezkoak, edo haien eragina jasotzen badute.

Zehazki, ordaintzera beharturiko subjektu pasiboak honako hauek dira:

- a) 4. artikuluko a), b), c), d) eta e) ataletan ezarritako tasetarako/prezio publikoetarako, hornidura kontratuaren titularra.
- b) 4. artikuluko f) atalean zehaztutako tasarako, hargunearen eskatzailea izanen da subjektu pasiboa.

Abonaturik ez dagoenean, ikuskatu diren lur, eraikin, establezimendu, zentro, egoitza eta gainerako higiezinaren jabeak izanen dira subjektu pasibo, betiere, zehapena ekarri duen jarduketaren onura jaso badute.

2. Zerbitzua zer finka edo eraikinetan egiten den, haiexen jabeak izanen dira zergadunaren ordezkari. Zerbitzuaren onuradunak beste batzuk badira, jabeek haiexei kobratzen ahalko dizkiete kuotak

3. Kontzeptu bategatik edo besteagatik titulartasunean edo erabileran ondorengoak direnei eskatzen ahal zaie pertsona fisikoek zein juridikoek egindako ustiapenen edo ekonomia jardueren ondoriozko zorra.

Ordaintzeko borondatezko epea bukatuta, eskuratzailerak eta eskualdatzailerak zorraren erantzule solidarioak izanen dira. Ustiapen edota ekonomi jardueraren titulartasunaz

jabetu nahi duenak, alde zuzenetik titular denaren onespina izanik, eskubidea izanen du Udalari kasuan kasuko jardura edo ustiapenak sorrarazitako tributu-zorren ziurtagiri zehaztua eskatzeko.

## **VI. KAPITULUA**

### **Zerga-oinarria**

#### **7. artikulua.**

4. artikuluko zerrendan aipatutako zergapeko egintzetan hauek dira bakoitzaren karga oinarriak:

a) 4. artikulua a) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera.

b) 4. artikulua b) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kontsumitutako metro kubiko ur kopurua, kontagailuaren bidez edo beste bide teknikoki onargarri batzuen bitartez zenbatetsita.

c) 4. artikulua c) atalean ezarritako zergapeko egintzarako:

kuota finkoa, ezarri beharreko kontagailuaren diametroaren arabera, edo ezarrita dagoenaren eta ezarriko denaren kuoten arteko aldea, diametroa, nahita edo teknikoki beharrezkoa delako, handitu behar bada.

d) artikulua d) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kuota finkoa, harguneko diametroaren arabera, edo kuoten arteko aldea, diametroa handitu bada. Kuota horri koefiziente zuzentzaileak aplikatuko zaizkio, etorkizunean ezartzen ahal diren erabilera arabera.

e) 4. artikulua e) atalean ezarritako zergapeko egintzarako, ur kopuru kontsumitua, metro kubikotan, kontagailuaren bidez edo beste bide teknikoki onargarri batzuen bitartez neurtuta..

f) 4. artikulua f) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: egindako ikuskapenen kopurua: Zenbat ikuskapen egin diren.

## **VII. KAPITULUA**

### **Tarifak**

#### **8. artikulua.**

Tributu-kuota kalkulatzeko, Imozko Udalak ekitaldi bakoitzean finkatuko du zein tarifa aplikatu tasa/prezio publikoetako zerga-oinarriari.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Tributu-kuotak**

#### **9. artikulua.**

Zerga-oinarriari bere tarifa aplikatuz ateratzen den emaitza da tasa bakoitzaren tributu-kuota.

#### **10. artikulua.**

Ateratzen den tributu-kuotaren gainean aplikatuko dira legeek aldi bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak, legeek ezarritako moduan eta baldintzetan.

## **IX. KAPITULUA**

### **Salbuespenak**

#### **11. artikulua.**

Nafarroako Parlamentuan onetsitako foru legeetan espresuki aurreikusirik dauden salbuespenak baizik ez dira onartuko, eta indarrak gabe gelditzen dira Nafarroako

Gobernuak edo beste edozein entitate edo erakunde publikok hartutako erabaki edo egindako jarduketa orotatik sortzen diren guztiak.

## **X. KAPITULUA**

### **Sorrarazpena**

#### **12. artikulua.**

Ordenantza honek finkatzen dituen tasak/prezio publikoak honako arau hauei jarraikiz sorraraziko dira:

1. artikuluko a) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak urtero sorraraziko dira, sarearekin lotura egina duten erabiltzaile guztientzat.
2. 4. artikuluko b), eta e) ataletan ezarritako tasak/prezio publikoak ur kontsumoa egiten den unean sorraraziko dira.
3. 4. artikuluko c) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak edateko uraren hornidura edo/eta hondakin urak husteko kontratua sinatzen den unean sorraraziko dira.
4. 4. artikuluko d) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak, uraren ziklo integralari buruzko ordenantzarekin bat, edateko uraren hornidura sareari edo/eta hondakin urak hustekoari lotzeko baimena ematen den unean sorraraziko dira.
5. 4. artikuluko e) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak, ordenantzaren arau-haustea eginez gero, baimendutako langileek ikuskapena edo egiaztapena egiten duten unean sorraraziko dira.

## **XI. KAPITULUA**

### **Ordainarazpena**

#### **13. artikulua.**

Ordenantza honek arautzen dituen tasak/prezio publikoak honako arau hauei jarraikiz ordainaraziko dira:

1. 4. artikuluko a) eta b) ataletan aurreikusitako tasak/prezio publikoak, urtean behin.
2. Aldiz, c), d) eta e) ataletan aurreikusitako tasak/prezio publikoak, sorrarazpenaren unean ordainaraziko dira
3. Ordea, f) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak, subjektu pasiboari jakinarazten zaizkionean ordainaraziko dira

## **XII. KAPITULUA**

### **Diru-bilketa**

#### **14. artikulua.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 82. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraituz, ordenantza honetan ezarritako tasak/prezio publikoak aplikatzeagatik sortzen diren tributu-zorrak "jakinarazpen gabekotzat" hartuko dira.

4. artikuluko a) eta b) ataletako tasek/prezio publikoek sorrarazitako tributu-zorrak, behin ordainarazirik daudela 13. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, modu orokorrean jakinaraziko dira, behar den iragarkia edo ediktua Udaleko iragarki oholean argitaratuz, eta argitalpen horretatik aitzina hogeita hamar egun balioduneko epea ezarri beharko da borondatez ordaintzeko, errekar gurik gabe.

Aldiz, 4. artikuluko c) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak, sorrarazten diren unean berean ordaindu beharko dira.

4. artikuluko d) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak hargunerako eskubidea ebatzi ondotik ordaindu beharko dira, Uraren ziklo integrala arautzen duen ordenantzan esan bezala, hogeita hamar egun balioduneko epearen barrenean,

ebazpena eman eta biharamunetik aitzina, eta 12.2 artikulua kasuan, hornidura kontratatzen den unean.

4. artikuluko f) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak subjektu pasiboari jakinarazten zaizkionetik hasi eta hogeita hamar egun balioduneko epean ordaindu beharko dira.

#### **15. artikulua.**

Borondatezko denboraldian ordaintzen ez diren tributu-zorrak, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, luzapen aldian ordaintzen ahalko dira, 6/1990 Foru Legearen 90. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Epe hori iragan eta zorrak ordaindu ez badira, premiamendu-bideari ekinen zaio, Udalak haiek atzeratzeko edo zatika ordaintzeko baimenik eman ez badu.

#### **16. artikulua.**

Tributu-zorren ordainketa honela egiten ahal da:

Zorren ordainketa helbideratu duten subjektu pasiboentzat, haiek adierazitako banku edo aurrezki entitatean eta kontuan kargatuz

Zorren ordainketa helbideratu ez duten subjektu pasiboentzat: banku edo aurrezki kutxen bulegoetatik horretarako gaitu direnetan.

### **XIII. KAPITULUA** **Arau-haustek eta zehapenak**

#### **17. artikulua.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honek indarra hartzen duenetik indarrik gabe geldituko dira, baliorik ez ondoriorik ez dutela, hari kontra egiten dioten xedapen, erregelamendu edo ordenantza guztiak, maila berekoak edo beheragokoak izan.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Ordenantza honek 2011ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.